

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

3,8 milioi euroko hitzarmena sinatu da Iruñeko Katedraleko klaustroa zaharberritzeko

Barkos Lehendakariak Nafarroako Gobernuak lan horiek kofinantzaketaren bidez burutzeko egin duen apustua azpimarratu du

Asteartea, 2016.eko maiatzak 31

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek Foru Komunitatearen, Iruña eta Tuterako Artzapezpikutzaren, eta "la Caixa" eta Caja Navarra banku-fundazioen arteko hitzarmena sinatu du Iruñeko Katedraleko klaustroa zaharberritzeko. Zenbait fasetan egingo da 2016 eta 2020 artean, 3.800.000 euroko hasierako aurrekontuarekin, eta haren barnean obrak zabaltzeko nahiz hedatzeko proiektua sartzen da.



Barkos Lehendakaria Katedraleko klaustroa zaharberritzeko hitzarmena sinatzen.

Bere agerraldian, Barkos Lehendakariak Nafarroako Gobernuak elementu arkitektoniko hori berreskuratzearen alde egindako apustua azpimarratu du, eta hitzarmenaren sinadura mugarri adierazgarri bat dela esan du; izan ere, alde batetik, kofinantzaketaren formula aplikatzen da eta, gainera, jarduera horrekin jendea ondarrera hurbildu dadin lortu nahi da.

Uxue Barkos ziur dago obra horrek jendearen interesa piztuko duela, eta gogora ekarri du katedrala monumentu historiko-artistikoa izendatu zela 1931ko ekainaren 3ko Dekretuaren bidez. "Klaustro gotikoa eta hura inguratzen duten gelak, berriz, Europako Erdi Aroko arkitekturaren ondare aberasgarrienetarikoak dira", eta ia mi mende behar izan ziren eraikitzeko, 1277tik 1472ra. "Gainera, Santiago bidean gehien bisitatzen den monumentuetako baten aurrean gaude. Izan ere, 2015ean 70.000 bisitari jaso zituen, horrek gure Foru Komunitaterako duen eragin kultural, sozial eta ekonomikoarekin".

Halaber, Lehendakariak adierazi du Nafarroako Gobernuak 2015ean honako proiektu hau finantzatu eta egikaritu duela (152.000 euro ia): estalkia zaharberritzeko, urak jaso eta ebakutzeko eta klaustropeko lauzak jartzeko proiektua. "Eta 2003. urtetik aurrera, orduan detektatu ziren Klaustroari eragiten zioten patologiak, premiazko zenbait esku hartze egin dira, bai eta hainbat azterketa egin ere".

Jarraian, Gobernuako arduradunak esku hartzea egiteko hitzarmenaren puntu nagusiak laburbildu ditu; 2016-2019 epearen artean egingo da zenbait fasetan, eta Nafarroako Gobernuak proiektuak idazteko

lana eta zaharberritze-obren zuzendaritza bere gain hartuko ditu. Hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak esku hartzerako aurrekontuaren % 33 finantzatuko du, Caja Navarra fundazioak eta "la Caixa" Gizarte Ekintzak % 56 eta Iruña nahiz Tuterako Artzapezpikutzak % 11. Nafarroako Gobernuak 1.254.000 euro inbertitzen du eta gainerako sinatzaileek, 2.546.000 euro, "ahalegin partekatu bat da, eta haren emaitza ere partekatua izan dadin bilatzen da".

Barkos Lehendakariak nabarmendu duenez, "lanei ikusgaitasuna emateko asmo horretan, esku hartzea zabaltzeko proiektu bat egingo da, hura egin bitartean nahiz amaieran, eta kultur ekintzak hartuko ditu barnean; eta, jakina, bisiten programazio bat antolatuko da askotariko jendearen eskaerari erantzuteko". Aurreikusita dago, halaber, "ahalik eta ikasle gehien hartuko dituen hezkuntza-programa bat garatzea, eta elkarte, talde eta beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea gure ondarearen adierazle garrantzitsu honen gaineko ezagutza zabaltzeko".

"Oso beharrezkoa den jarduera baten aurrean gaude –dio Uxue Barkosek– gure ondarearen elementu garrantzitsu bat zaintzeko orduan baina, aldi berean, aukera ezin hobe izango da Europa guztiko klaustro gotikoaren adibide aipagarrienetarikoa baten gaineko lan didaktikoa sustatzeko".